

2016-2020 GIZARTERATZEKO PLANA



elkar-EKIN

Gipuzkoako Gizarteratzea
Inclusión Social Gipuzkoa

LANAREN LABURPENA
ETA 2016-2017
EKINTZA PLANA
2016ko ekaina

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Gizarte Politikako
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Políticas Sociales



**ORAIN
GIPUZKOA**

0. Aurkezpena eta oinarriak

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak Gizarteratzeko Plana bultzatu nahi du gizarte entitate, udal eta beste erakunde publiko batzuen laguntzarekin; izan ere, plan horren helburua da gizarteratzearen inguruan gaur egun dauden politika sektorial ezberdinak antolatzea, eta gizarteratzearen xedeari modu eraginkorrean ekiteko estrategia berriak bultzatzea.

Gizarteratzeko plan horri Elkar-EKIN izena eman zaio, **elkarlanaren ondoriozko ekintza batetik** abiatuta, lidergo hori onartzea eta sustatzea izan dadin ideia nagusia plana diseinu, garatu eta ezartzeko bidean.

Elkar-EKIN plana bere garapeneko esparru arauemailean eta estrategikoan oinarritzen da eta, ildo horretan, erabat bat dator Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketako Plan Estrategikoan jasotako balio, helburu eta konpromisoekin; izan ere, Aldundiak plan estrategiko hori palankatztat hartu du Gipuzkoaren ekonomia eta gizartea eraldatzeko, kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiaren ahaleginen plangintza eta lehenespen egituratua proposatzen duela Gipuzkoaren lehiakortasun, ongizate eta garapen jasangarriaren etapa berri batean aurrera egin ahal izateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarteratzeko Planean kontuan hartu dira, bereziki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019ko Kudeaketa Plan Estrategikoan jasotako helburuetako bi, hauek hain zuzen:

- ***Ekonomiaren susperraldia finkatzea***
- ***Ongizate eta gizarte kohesioko eredia indartzea***

Bi helburu horiek betetzera bideratutako hurbilketa eta ekintza prozesuan alderdi hauek hartu behar dira kontuan, gutxienez:

- Beharrezkotzat jotzen da helburuen ikuspegia izatea eta horien tratamendu integrala eta sistemikoa egitea, ongizatearen gizartea eraikitzeak eta Gipuzkoa lurralde kohesionatu bihurtzeak eredu bat eskatzen dutelako, helburuak OSOTASUNEAN lantzeko eta PERTSONAK planaren izateko arrazoitzat eta justifikaziotzat hartzeko.
- Giza Garapenaren Eredu Jasangarriaren ideia gainean eraiki behar da eredu hori.
- Lan egin behar da Gipuzkoa kohesionatua eta solidarioa lortzeko, eta lurralde hori berdintasunaren erreferente bihurtzeko. Ezinbestekoa da pertsona GUZTIEN partaidetza eta ongizatea bermatzea, lortu nahi den ongizatearen gizarteak eskaintzen dituen onurei dagokienez berdintasun maila handiena lortzeko, eta, halaber, gipuzkoar guztien Aukera Berdintasuna bermatzeko.

- Plan honetan jasota dauden politika eta ekintza guztiak bideratuta egongo dira lurraldeko pertsona guztien integrazioa eta gizarteratzea bermatzera, justizia eta berdintasuna oinarri hartuta.
- Gizarteratzeko Plana garatzerakoan emakumeari begiratuko zaio bereziki; izan ere, giza ahultasun egoeran dagoen emakumeak arazo gehiago ditu emakumea izateagatik. Horregatik, emakumeenganako ekintza positiboak bultzatuko dira prestazioak eta zerbitzuak eskaintzerakoan.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak gidatu behar du Gizarteratzeko Plana, baina Gipuzkoako gizarte guztiaren laguntza eta partaidetza behar dira, bai zuzenean bai lurraldeko erakunde nahiz eragile politiko, sozial eta kulturalen bitartez; izan ere denon konpromisoa behar da Gipuzkoan ongizatearen gizartea eraikitzeko eta lurralde hori komunitate kohesionatua izateko.

1. Arreta sarearen azterketa eta diagnostikoa

Gipuzkoan gizarteratzeko zerbitzu eta prestazioen egungo sareari dagokionez, elementu hauek azpimarratu behar dira:

Indarguneak

Zuzeneko arreta zerbitzuen eta prestazio ekonomiko eta sozialen sare sendoa dago, eta horrek aukera ematen du eskaera gehienei erantzuteko eta pobrezia, gizarte bazterketa eta babesgabetasun egoera larriak saihesteko.

- ✓ **Gizarte bazterketaren aurkako zerbitzu eta prestazioen sarea mantentzeko apustu politiko eta instituzional** sendo bat dago, aurrekontu murrizketak izan badira ere.
- ✓ Gizarteratzeko zerbitzu sozialak mantentzearen aldeko **adostasun soziala** handia da.
- ✓ **Esparru arauemaile aurreratu** bat dago, eta nahiz eta erabat garatu gabe egon, argi zehazten ditu datozen urteetan aurrera egiteko garatu beharreko lerroak .
- ✓ **Teknikoki trebea den irabazi asmorik gabeko entitateen sare** sendo bat dago, zeinak baliabide asko sustatu eta kudeatzen dituen; gainera, lan asko egiten du gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen eskubideak bermatzeko.
- ✓ Gure inguruko beste herrialde batzuek modu arrakastatsuan garatu dituzten **eredu, paradigma eta jardunbide egokiak gero eta onartuagoak dira eragile guztien artean**, eta gaiarekin zerikusia duten eragile guztiek prest daude gure herrian eredu horiek probatu eta aplikatzeko.

- ✓ **Foru Aldundiaren gizarteratzeko baliabideen sarearen artikulazio eta antolaketa prozesua** handituz doa.

Ahuleziak

Bi ahulezia nagusi daude sarean: alde betetik, gutxi garatu direla hainbat programa eta baliabide, eta, bestetik, ez dagoela esku-hartzeko eredu bakar eta partekaturik (ez gizarte bazterketa ulertzeko ere) eta, batez ere, antolaketa ahula duela sistema gisa. Hauek dira antzemandako arazoak:

- ✓ **Ez dago lidergorik** sistema antolatzeko.
- ✓ **Zailtasunak** daude lehen mailako arretaren eta bigarren mailako arretaren arteko eginkizunak mugatzeko.
- ✓ **Koordinazio eta kogestiorako formula egonkorrak falta dira.**
- ✓ **Desorekak** daude baliabideak lurraldean hedatzeko moduan.
- ✓ Esku-hartze sozialaren esparruan garatzen ari diren **paradigma berriak** aplikatu behar dira.
- ✓ **Murrizketa ekonomikoak** eta finantza-nahikotasuna.
- ✓ **Premiak daude ebaluazioari**, kalitatearen adierazleei eta ezagutzaren kudeaketari lotutako arloetan.

Aukerak

Gipuzkoan itun edo akordio bat sinatu daiteke foru administrazioaren eta udal administrazioaren artean, oinarritzko lau kontzeptu-printzipiotik abiatuta:

- ✓ **Asistentziatzko eta karitatezko edo ongitzazko eredu batetik abiatutako bilakaera amaitzea eta Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legean ezarritako eredurantz bideratzea**, hau da, gizarte zerbitzuei eskubide subjektiboa aitortzea, zerbitzuen inguruan administrazioak duen erantzukizuna onartzea, eta arreta komunitarioa eta hurbila, banakako esku-hartzea eta bizitza kalitatea sustatzea.
- ✓ **Zerbitzuak eskuratzeko moduak arautzea, betiere inklusio irizpideak erabilia.**
- ✓ **Aktibazio-eredu inklusibo bat garatzea**, bizi kalitatea hobetzera, gizarteratzerara eta kalteak murriztera eta saihestera bideratuta.
- ✓ **Prebentzioan eta gizarte bazterketaren kontrako ahaleginetan oinarritutako arreta sare bat garatzea, gizarteratzea sustatzeko xedea propiotzat hartuko duena.**

2. Araudi esparrua

Gizarte zerbitzuen sistemaren araudiak gizarteratze premien arretan ardurak esleitzen dizkie erakunde maila ezberdinei:

- Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legea.
- 2015eko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.
- Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 2008ko abenduaren 23ko 18/2008 Legea, zeinak eskuduntzat jotzen dituen Aldundiak gizarteratzeko foru programak egiteko eta garatzeko.
- 2016ko maiatzaren 12ko 6/2016 Legea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzkoa.
- 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Planaren asmoa da aipatutako legeak nahiz gizarteratze planak garatzean sortzen diren aukerak ahalik eta gehien uztartzea, probetxurik handiena bilatuz, bikoiztasunak saihestuz eta emaitzak ebaluatuz.

3. Esparru estrategikoa

2016-2020 Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Planak esparru estrategiko hau dauka erreferentzia gisa:

- Gizarteratze Aktiborako III. Euskal Plana 2012-2016
- EAeko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketako Plan Estrategikoa 2015-2019
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuko Jarduketa Plana 2016-2019
- Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Mapa 2015-2017

2016-2020 Elkar-EKIN Gizarteratzeko Planak aipatutako planetan aurreikusitako helburuak betetzen lagunduko du.

**GIPUZKOAKO
2016-2020
EIKAR-EKIN
GIZARTERATZEKO
PLANA**



| EAEKO GIZARTE ZERBITZUEN PLAN ESTRATEGIKOA 2015-2019 | | GIZARTERATZE AKTIBOKO EUSKAL PLANA 2012-2016 | | GIZARTE POLITIKAKO DEPARTAMENTUAREN JARDUERA PLANA 2016-2019 | |
|---|---|---|--|---|---|
| PLAN ESTRATÉGICO DE GESTIÓN 2015-2019 Diputación Foral de Gipuzkoa | | | | | |
| HELBURU ESTRATEGIKOAK | KONPROMISOAK | PROIEKTU ESTRATEGIKOAK | GIZARTE POLITIKAKO HELBURU ESTRATEGIKOAK | ARDATZAK | HELBURU ESTRATEGIKOAK |
| <p>Ekonomian errekuperazioa finkatzea, enpresen lehiakortasuna sendotuz.</p> <p>Gizarte ongizateko eta lurralde garapenerako errotia indartzea</p> <p>Gure lurraldea modernizatzeke gaurkotzeke errotien proiektuak onartzea</p> <p>Gipuzkoako gobernuaren berrantolatzea, lurraldearen garapenerako eta errotiztatzearen eragile gisa</p> <p>Herritarren arteko elkarbizitza finkatzea, ezribesteke baldintza delako lurraldeko pertsona, herri eta inbren erabateko garapenera bultzatzeke</p> | <p>Gizarte ekintzaldea</p> <p>Herritarren zerbitzurako szipiegiturak</p> <p>Iraunkortasun integrala</p> <p>Elkarbizitzaren eta balioen kultura</p> <p>Hizkuntzen elkarbizitza berdintasun planoan</p> <p>Lurralde oreka</p> <p>Mundu guztira irekliztea</p> <p>Gobernaintza ona</p> <p>Justizia soziala</p> | <p>Ekonomia Susperterako Plana</p> <p>Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapa 2015-2017</p> <p>Hondakinek jabetza Plana 2015-2017</p> <p>Talantzia</p> <p>Gipuzkoako birbilgunea</p> <p>Gobernaintza Onaren estrategia</p> <p>Kultura Politikoko eta Demokrazian Sakonitzeko programa</p> | <p>Gipuzkoako gizarte balibideen sare publikoko eskaintza egokitzeta gizarte berriaren bitartean, eta eskaintzaren lurralde oreka loritzea</p> <p>Zerbitzu eta prezioaren eskaintzaren kalitatea hobetzea, bermatzeko pertsonen beharri egoki eta ahal den gutxien erantzun handienaz erantzungo zaila</p> <p>Gure sarea egokitzeko lanetan aurrera egitea, Gizarte-zerbitzuen Legeak eta hori garatzen duten tresnek ezarritakoaren arabera.</p> <p>Koordinazio ezbe-eragileko errotia bultzatzea, pertsonen beharretara eta dauden balibideen optimizaziora egokiturako arreta integrala eskaintzea ahal izateko</p> <p>Elkerria publiko pribatuaren formula berriak zuzentzea eta errotiztea, ekonomiko jasangarriak diren kalitateko zerbitzu publikoak eskaintzeke</p> <p>Hirugarren sektorearen parte hartzea sustatzea kide estrategiko gisa, gizarte ongizatea eta kohesioa, nahiz enplegu zuzia sortzeko</p> <p>Gizarte zerbitzuen arloan H-CHP jarduerak, ebaluazioa eta praktika onak sustatzea, arreta komunitarioa indartzeko, eraginkortasuna eta erantzun hobetzeko, kostuak arazionalizatzeko eta gizarte premia berri erantzuteko</p> | <p>HOBETZEA GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ANTOLAMENDUA, ESTALDURA ETA KALITATEA</p> <p>GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUAK ORAINGO ETA GEROKO ESKARIAREN ALDAKETEI EGOKITZEA</p> <p>ERAKUNDE GUTZIEKIN ELKARLANEAN ARITZEA, GIZARTE ZERBITZUEN LEGEA GARATZEKO</p> | <p>Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sistemaren errotiztatzea eta indartzea</p> <p>Arretaren esalidura eta kalitatea hobetzea</p> <p>Mendeko pertsonen eta desgaituen autonomia sustatzea</p> <p>Gizarteratzea sustatzea eta bazterketa arriktuan edo egoeren daudenei arreta eskaintzea</p> <p>Babesgabezia arriktuan edo egoeren daudenei eskaintzen zaien arreta hobetzea</p> <p>Erakunde guztien arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatzea gizarte zerbitzuak garatzeko</p> |

LANKIDETZA ETA PARTE HARTZEA GIZARTE ENTITATEKIN, UDALEKIN ETA BESTELAKO ERAKUNDE PUBLIKOekin

4. Gipuzkoako Gizarteratzeko Plana 2016-2020 Elkar-EKIN

Gizarte Politikako Departamentuak, Elkar-EKIN Planaren bitartez, Gipuzkoan gizarteratzera bideratutako gizarte zerbitzuen antolaketa, estaldura eta kalitatea hobetu nahi ditu, betiere gaiarekin zerikusia duten gainerako eragile publiko eta sozialen laguntzarekin.

Ilido horretan, plan honen xedea da **kolektibo ezberdinen artean eraiki beharreko prozesuaren gidari izatea, eta gizarteratzera zuzendutako estrategia eraginkorrek bultzatzea.**

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak, Elkar-EKIN plana erabilia, lidergo eraldatzaile bat onartu eta garatu behar du alderdi hauetan oinarrituta: desberdinen arteko lankidetzan; gizarte, ekonomia eta kultura alorretako eragile guztien partaidetzan; gizartearen berrikuntzan, egun dauden gizarte bazterketa arazoei aurre egiteko behar diren gizarteratze erantzunak identifikatu eta aurkitzeko; eta bere **misioarekin** duen konpromisoan:

“Denon artean, elkarlanean, Gipuzkoan gizarte solidarioagoa, berdina goa eta inklusiboagoa lortuz pertsonen gizarteratzeko arriskua sortzen duten faktoreak ezabatuz eta pertsona ahulenei gizarteratzea errazteko baliabideak emanaz”.

4.1. Gobernantza eredua

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Elkar-EKIN Gizarteratzeko Planaren gobernantza eredua plan horren Gobernu Onetik abiatuta eraikitzen da, eta baita ere plana zehazteko interesa eta gauzatzeko konpromisoa duten politika, gizarte eta hezkuntza alorretako eragile guztien partaidetza eta lankidetzarekin.

Azpimarratu nahi da plan bizia, irekia eta elkarlanean egitekoa dela; horrela, gizarte eragile guztien partaidetza sustatu nahi da, eta, eragile horien ekarpen eta proposamenak erabiliz, plana zabaldu eta aberastu nahi da indarrean dagoen bitartean.

Eredu horrek oinarritzat hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Orkestrak azken zazpi urteetan garatu duten “Gipuzkoa Sarean” proiektuan erabilitako metodologia.

Oinarrizko printzipioak

- 1) Ezagutzaren kogenerazioa
- 2) Garatzeko bidean dagoen prozesua.
- 3) Parte hartzaile guztien partaidetza eta ekarpenak errespetatzea.


Abiapuntuko esparrua

Ikerketa-ekintza-partaidetzaren esparru kontzeptualetik abiatzen gara. Ikerketa-ekintza esparrua denbora errealean aldatzeko estrategia gisa zehazten da, non ikerketa, ekintza eta partaidetzako elementuak prozesu berean elkartu eta lotzen diren.

Prozesuaren faseak

Parte-hartze prozesu honek eredu zikliko bat zehazten du, gauzatu ahala sortzen doana, eta bertan identifikatuta dauden eragileek elkarren artean eraikitzen dituzte ereduaren definizioa eta garapena, azaroaren ezaugarriak eta garapena azalduz. Prozesuak ondorengo fase hauek izango ditu:

Partaidetzazko aldaketa, gauzatu ahalako ikaskuntza gisa.



Eredu horrek, halaber, **ekintzen eta helburuen ebaluazio eta jarraipen plan** bat diseinatzea eta gauzatzea aurreikusten du, helburuen jarraipena, ebaluazioa eta kontrol publikoa egiteko aukera emango duena, betiere ezarritako helburuen gauzatzeko maila ebaluatzeko eta hobekuntzak edo aldaketak sartzeko.

Koordinazioa

Deustuko Unibertsitateak bideratuko du prozesuaren dinamizazioa. Koordinazioa, berriz, **talde motor** baten esku egongo litzateke, prozesuaren lehenengo fasean zehaztu beharreko barneko eta kanpoko eragileek osatua.

4.2. 2016-2020 Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Planaren jarduketaren helburuak eta lerroak

| | |
|-------------|--|
| 1. HELBURUA | Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta hobetzea |
| 2. HELBURUA | Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako aukeren sormena sustatzea |
| 3. HELBURUA | Kohesioko eta aktibazio inklusiboko proiektuak bultzatzea eta sustatzea |
| 4. HELBURUA | Gizarte babeseko beste sistema batzuekin koordinazioa sendotzea, arlo sozio-sanitarioari arreta berezia emanez |
| 5. HELBURUA | Herritarrak Gipuzkoako gizarteratzearen inguruan komunikatzea eta sentsibilizatzea |

2016-2020 Elkar-EKIN Gipuzkoako Gizarteratzeko Planaren helburuak 6 jarduketa lerroren barruan sartzen dira:

| | |
|---|---|
| 1. HELBURUA, Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta hobetzea | |
| JARDUERA ILDOAK | |
| 1 | Gizarteratzeari lotutako zerbitzuak eta prestazioak garatzea |
| 2. HELBURUA, Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako aukeren sormena sustatzea | |
| JARDUERA ILDOAK | |
| 2 | Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako enplegurako eta gizarteratzeko aukerak sustatzea |
| 3. HELBURUA, Kohesioko eta aktibazio inklusiboko proiektuak bultzatzea eta sustatzea | |
| JARDUERA ILDOAK | |
| 3 | Toki erakundeen eta gizarte erakundeen arteko lankidetzaren sustatzea gizarteratze prozesuen kudeaketan |
| 4 | Ikerketa eta berrikuntza sustatzea jardunbide egokiei dagokienez |
| 4. HELBURUA, Gizarte babeseko beste sistema batzuekin koordinazioa sendotzea, arlo sozio-sanitarioari arreta berezia emanez | |
| JARDUERA ILDOAK | |
| 5 | Gizarte bazterketaren gaia lantzerakoan zeharkako prozesuak garatzea beste zerbitzu publiko batzuekin lankidetzan |
| 5. HELBURUA, Herritarrak Gipuzkoako gizarteratzearen inguruan komunikatzea eta sentsibilizatzea | |
| JARDUERA ILDOAK | |
| 6 | Komunikazio Plan bat diseinatu eta garatzea, gizarteratzearen inguruko sentsibilizazio egiteko |

4.3. Elkar-EKIN Ekintza Plana 2016-2017

2016ko ekainetik 2017ko ekainera bitartean, abian jarriko dira, aurreikuspenen arabera, ondorengo orrialdietako koadroetan jasotzen diren ekintzak eta neurriak.

Hedapen horren arabera, beharrezkotzat jotzen da **1.800.000** euro xedatzea 2016-2017 Ekintza Planean aurreikusitako ekintza eta neurri guztiak finantzatzeko.

Gastu/inbertsio hori 2016 eta 2017ko aurrekontu ekitaldietan banatuko da.

Halaber, aurreikuspenen arabera, denboraldi horretan zehar **1.500 pertsona** inguru emango zaie arreta zuzenean edo onuradun izango dira ekintza eta neurri horien eraginez.

| Elkar-EKIN Ekintza Plana 2016-2017 | | |
|--|--|-----------|
| 1. HELBURUA, Gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonen arreta hobetzea | | |
| LERRA ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK | | |
| 1 | Gizarteratzeari lotutako zerbitzuak eta prestazioak garatzea. | 2016-2017 |
| 1.1 | Gizarte bazterketaren balorazio eta orientazio zerbitzua abian jarri | √ |
| 1.2 | Tokiko entitateen, gizarte entitateen eta Gizarte Politikako Departamentuaren arteko lankidetzak aktiboak: koordinazioa eta partaidetza arreta sarean | √ |
| 1.2.1 | Udaletako gizarte zerbitzuen partaidetza gizarte bazterketaren balorazioaren inguruan | √ |
| 1.2.2 | Foru Aldundiak mekanismoak garatzea zerbitzuak emango dituzten elkarten eraketa bultzatu eta sustatzeko, betiere baliabideak erabiltzerakoan gertutasun geografikoaren eta eraginkortasunaren printzipioa kontuan hartuta. | √ |
| 1.3 | Bazterketa egoeran dauden pertsonentzat egoitza baliabide berriak, eta eguneko nahiz gaueko arretakoak sortu eta berrantolatzea | √ |
| 1.3.1 | Bazterketa egoeran egon eta buruko gaixotasuna duten pertsonen arreta premiei erantzuteko arreta baliabideak diseinatzea eta abian jartzea | √ |
| | Martxan jartzea egoitza arreta espezializatuko unitate berri baten proiektua | √ |
| 1.3.2 | Martxan jartzea esperientzia pilotu hau Donostiako Udalaren lankidetzarekin: Housing First proiektua | √ |
| 1.3.3 | Administrazio eta entitate desberdinen eskumenekoak diren zerbitzuak bateratuko dituzten balio anitzeko eguneko arreta zerbitzuen proposamen bat diseinatzea | √ |
| 1.3.4 | Arreta sarea piskanaka zabaltzea | √ |
| | Bidasoaldean eguneko zentro berri bat irekitzea | √ |
| | Gaueko harrera zentroa | √ |
| | Egoitza plaza berriak hitzartzea kronifikatutako gizarte bazterketa egoeran daudenentzat | √ |
| | Plaza berriak hitzartzea emantzipatzeko etxebizitzetarako | √ |
| 1.4 | Zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazioen eta Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretura egokitu, 2017tik aurrera eskubide unibertsala eta subjektiboa bermatzeko | √ |
| 1.4.1 | Zorroari buruzko dekretuan adierazten diren gizarte zerbitzuen prestazioak zentroetan ezartzea | √ |
| 1.5 | Gaur egun gizarte entitateekin sinatuta dauden hitzarmenak eta kontratuak piskanaka egokitzea, gizarte bazterketaren ondoriozko beharrei erantzuteko | √ |
| 1.6 | Arreta egokitzea, intentsitate ertain eta handiko irizpideei eskakizun txiki, ertain edo handiarekin erantzunez | √ |

| 2. HELBURUA, Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako aukeren sormena sustatzea | | |
|---|---|-----------|
| LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK | | |
| 2 | Gizarte bazterketako arriskuan eta egoeran dauden pertsonentzako enplegurako eta gizarteratzeko aukerak sustatzea | 2016-2017 |
| 2.1 | Gizarteratzen eta lanbideratzen laguntzeko programak indartzea. Prestakuntzako eta enplegarritasuna sustatzeko ekintza positiboak | √ |
| 2.1.1 | “Sendotu Aldiberean” proiektu berria abian jartzea | √ |
| 2.1.2 | Ijitoentzako prestakuntza- eta gizarte eta lan arloko laguntza-programa indartzea | √ |
| 2.1.3 | “Landuz” proiektu berria abian jartzea | √ |
| 2.1.4 | Lankidetzak akordioak sinatzea beste eragile sozial batzuekin, lan inklusiboa sortu eta sustatzeko | √ |
| 2.2 | Gizarteratzeko eta gizarte ekonomiako enpresen eta kooperatiben sorrera sustatu eta bultzatzea, bereziki, bazterketa arriskuan dauden eta kualifikazio gutxien duten pertsonentzat enplegu aukera berriak sortzen diren esparruetan | √ |
| 3. HELBURUA, Kohesioko eta aktibazio inklusiboko proiektuak bultzatzea eta sustatzea | | |
| LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK | | |
| 3 | Toki erakundeen eta gizarte erakundeen arteko lankidetzak sustatzea gizarteratze prozesuen kudeaketan | 2016-2017 |
| 3.1 | Entitateekin lankidetzan, gizarteratze prozesuen kudeaketa garatzeko proiektuak bultzatzea | √ |
| 3.1.1 | Gizarteratzea aktibatu aisian, kulturen eta parte hartze zibiko eta komunitarioan oinarritutako tresnen bidez | √ |
| 3.2 | Banakako gizarteratze prozesuak indartzeko laguntza ekonomikoak diseinatzea eta onartzea, betiere Arreta Pertsonalizatuko Planaren barruan. | √ |
| 3.2.1 | Gizarteratzeko banakako prozesuei lotutako diru laguntza diseinatzea eta onartzea | √ |
| 4 | Ikerketa eta berrikuntza sustatzea jardunbide egokiei dagokienez | √ |
| 4.1 | Prestakuntzako, ikerketako eta praktika onen kudeaketako programak sustatzea, gizarte bazterketaren kontzeptualizazioari eta arazo horri ekiteari dagokienez | √ |
| 4.2 | Epe ertain eta luzeko erronkei aurrea hartzen lagunduko duten gizarte bazterketari buruzko ikerketa proiektuak eta mintegiak egin eta garatzea. | √ |

| 4. HELBURUA, Gizarte babeseko beste sistema batzuekin koordinazioa sendotzea, arlo sozio-sanitarioari arreta berezia emanez | | |
|---|---|-----------|
| LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK | | |
| 5 | Gizarte bazterketaren gaia lantzerakoan zeharkako prozesuak garatzea beste zerbitzu publiko batzuekin lankidetzan | 2016-2017 |
| 5.1 | Lanbide. Gizarte eta lan arloa | √ |
| 5.1.1 | Lankidetzaren protokoloa ezartzea | √ |
| 5.2 | Haurrak eta Nerabeak | √ |
| 5.2.1 | Emantzipazio programak garatzea | √ |
| 5.4 | Gizarte eta osasun arloa | √ |
| 5.4.1 | Gizarte bazterketako egoeran egon eta buru patologia duten pertsonen zuzendutako programak abian jartzea | √ |
| 5.5 | Ogasuna | √ |
| 5.5.1 | Gizarteratzeko esparruan zerga-sistema sustatzera bideratutako neurriak aztertzea | √ |
| 5.6 | Genero indarkeriaren arreta | √ |
| 5.6.1 | Babesgabezia egoeran dauden genero indarkeriaren biktimei zuzendutako arreta zerbitzuak egokitu eta hobetzea | √ |
| 5.10 | Hezkuntza | √ |
| 5.10.1 | Lankidetzaren protokoloa ezartzea | √ |
| 5.11 | Hizkuntz Berdintasuna | √ |
| 5.11.1 | Euskara sustatzea gizarteratze bidean laguntzeko | √ |

| 5. HELBURUA, Herritarrak Gipuzkoako gizarteratzearen inguruan informatzea eta sentsibilizatzea | | |
|--|--|-----------|
| LERRO ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZAK | | |
| 6 | Komunikazio plan bat diseinatzea eta garatzea gizarteratze arloko alderdien inguruan herritarrak sentsibilizatzeke | 2016-2017 |
| 6.1 | Komunikazio plan bat diseinatzea eta abian jartzea | √ |



elkar-**EKIN**

elkar-EKIN

Gipuzkoako Gizarteratzea
Inclusión Social Gipuzkoa

